

POLIZI OPERAZIOA. ETAre bi talde desegin dituztela dio Acebesek

Beste bost miaketarekin, amaitutzat eman du Guardia Zibilak operazioa

Atxilotuen senideek
'habeas corpus'-a
eskatu dute

da Askatasuna. Bestalde, Usurbilen manifestazioa egin zuten atzo 250 lagunek.
Angel Acebes Espainiako

Barne ministroak bukatutzat eman zuen atzo operazioa eta *Donostia komandoko* bi talde desegin dituztela jakinarazi zuen.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Guardia Zibila, Usurbilen herenegun egindako operazioan.

Erredakzioa | DONOSTIA

Guardia Zibilak beste bost etxebizitza miatu zituen atzo Gipuzkoan, asteburuan Bizkaian eta Gipuzkoan hasitako polizi operazioaren barruan. Bertan, dokumentazioa eta material informatikoa atzeman zuten. Hala ere, inor ez zuten atxilotu.

Larunbatz geroztik sei pertsona atxilotu ditu Guardia Zibilak: larunbatean Oihane Bakedano Donostian, igandean Rafael Berasategi Seguran eta Aizeti Fernandez Gatican eta astelehenean Aritz Lasa Donostian eta Jokin Errazti eta Oihana Lizaso Usurbilen. Bakedano, Berasategi eta Fernandez bihar pasatuko dira epailearen aurretik.

Lasa, Errazti eta Lizasoren atxilotetak Teresa Palacios Espainiako Auzitegi Nazionalako 3. Instrukzio Epaitegiko epailearen aginduz egin ziren. Askatasunak jakinarazi zuenez, miaketa gehienak baimena aurkeztu aurretik egin ziren.

Atzoko miaketan artean, Lasarte-Orian Aitzol Iriondoren etxea miatu zutela baieztatu zuten Askatasunak. Handik, bi ordenagailu, argazkiak eta paper batzuk eraman zituzten.


Guardia zibilek jo egin zutela esan die Lasak gurasoei

Astelehen arratsaldean Aritz Lasa atxilotu ondoren, gaueko 22:00etan haren gurasoen etxera eraman zuten guardia zibilek eta bi orduz miatu zuen. Lasa une batez bere gurasoekin egon ahal izan zen eta guardia zibilek jo egin zutela esan zien, Askatasunak jakinarazi zuenez. Jarraian, guardia zibil batek ahoa estali eta kaputxa bat jarri zion, inkomunikatuta zegoela esanez. Gurasoak ezin izan ziren egon miaketan, sotoan egotera behartu zituztelako.

Berasategi, Bakedano, Lasa, Lizaso eta Erraztiren senideek *habeas corpus*-a eskatu dute, tortura eta tratu txarren arriskua egon daitekeelakoan. Berasategiren familiakoei ukatu egin zieten. Batez ere, Lasaren egoeraz beldur dira, gaixotasun bat duelako jaiotzetik. Atxilotuak torturatuko dituzten beldur azaldu

GASA

Ondo erabiltzeko eta ondo mantentzeko aholkuak



Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, **gas naturala, butanoa eta propano gasaren erabiltzaileei** honako aholku hauek proposatzen dizkie, beraien instalazioak ondo erabil ditzaten. Guztion artean lortuko dugu **istripurik ez izatea**. Lagundu zuk ere aholku hauek betez.

Ikuskaritzak eta azterketak

Kanalizazio bidezko gas naturala edo propano gasa erabiltzen dutenak

- Gasaren enpresa-hornitzailea zurekin harremanetan jarriko da 4 urtean behin, dagokion ikuskaritza burutzeko.
- Ez da beharrezkoa zuk enpresa-hornitzaileari deitzea lehen burutzen zituzten azterketak egiteko.
- Azkeneko azterketa burutu zenetik lau urte iragandakoan enpresa-hornitzaileak deitzen dizunean, erraz iezaiozu ikuskaritza-lana.

Butanoa eta propano gasa erabiltzen dutenak

- Zure instalazioaren azterketa, beti ere 4 urtean behin egin beharrezkoa, baimendutako enpresa batek bakarrik egin lezake. Kasu honetan, erabiltzaileak eskatu beharko du azterketa hori.
- Enpresa ezezagunek eskaintzen duten zerbitzuetaz ez fidatu eta jar zaitez harremanetan zure betiko enpresarekin.
- Eskatu beti azterketaren ziurtagiria eta dagokion faktura.

Beste aholku batzuk

- Akatsen bat topatzen baldin badute zure instalazioan, lehen bait lehen zuzendu.
- Akatsak ez zuzentzeak edota azterketak/ikuskaritzak ez egiteak, gas-horniketaren mozketak ekar lezake.
- 15 KW baino gehiagoko galdaretan (ohizkoenak alegia), derrigorrezkoa da 2 urtean behin mantentze-lanak egitea errekontza ona bermatzeko eta ingurumena zaintzeko. Mantentze-lan hauek, galdararen markako zerbitzu ofizialarekin kontratatatu edota Eusko Jaurlaritzak baimendutako zerbitzu teknikoekin.

- Gogoan izan, galdara atmosferikoa (ohizkoena alegia) sukaldetan baldin badaukazu, konmutadore bat jarri behar duzula 2003ko urtarrila baino lehen, galdarak eta ke-erazgailuak batera funtzionatu ez dezaten.
- Gasezko sukaldearen ordezkari elektrikoa jartzen baduzu, baimendutako enpresa batek egin beharko du eta enpresa banatzaileari jakinarazi.
- Aireztapen-saretak garbi eduki, inolako oztoporik gabe.
- Gas-ihesik somatzen baduzu, ireki lehioak eta ez sakatu etengailurik.

aurrera doan **herria**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO